

Gidabaimenak  
**Euskaraz**



# IKASLEAREN ESKULIBURUA

B baimena



**Euskadiko Autoeskolen  
Federakuntza**  
Federación de Autoescuelas  
de Euskadi

# AURKIBIDEA

## 1. GAIA | OINARRIZKO NOZIOAK: BIDEA, IBILGAILUAK ETA ZIRKULATZEKO BALDINTZAK

<b>BIDEA</b>	<b>7</b>
BIDE-MOTAK	7
BIDEAREN ZATIAK	9
BIDEARI BURUZKO BESTE KONTZEPTU BATZUK	11
<b>IBILGAILUAK</b>	<b>12</b>
OINARRIZKO KONTZEPTUAK	12
IBILGAILUEN SAILKAPENA	12
MOTORRIK GABEKO IBILGAILUAK	13
MOTORDUNTZAT HARTZEN EZ DIREN IBILGAILUAK	13
IBILGAILU MOTORDUNAK - AUTOMOBILAK	14
IBILGAILU MOTORDUNAK - BEREZIAK	16
<b>ZIRKULATZEKO BALDINTZAK</b>	<b>17</b>
GIDARIAREN DOKUMENTAZIOA	17
IBILGAILUAREN DOKUMENTAZIOA	28

## 2. GAIA | BIDE-SEINALEAK

<b>ARAU OROKORRAK</b>	<b>36</b>
ZIRKULAZIO-SEINALEEN ARTEKO LEHENTASUN-ORDENA	36
SEINALEEI OBEDITZEA	38
<b>BIDE-MARKAK</b>	<b>39</b>
BIDE-MARKEN SAILKAPENA	39
LUZETARAKO MARKA ZURIAK	39
ZEHARKAKO MARKA ZURIAK	41
ZIRKULAZIO-SEINALE HORIZONTALAK	42
BESTELAKO MARKA ETA INSKRIPZIO ZURI BATZUK	43
BESTE KOLORE BATZUETAKO MARKAK	45
<b>ZIRKULAZIO-SEINALE BERTIKALAK</b>	<b>46</b>
ARRISKUAZ OHARTARAZTEKO SEINALEAK	48
ARAU-SEINALEAK	51
ARGIBIDE-SEINALEAK	61
<b>SEMAFOROAK</b>	<b>83</b>
OINEZKOENTZAKO SEMAFOROAK	83
IBILGAILUENTZAKO SEMAFORO ZIRKULARRAK	83
IBILGAILUENTZAKO SEMAFORO KARRATUAK EDO ERREIKO SEMAFOROAK	86
IBILGAILU JAKIN BATZUENTZAKO SEMAFOROAK	86
<b>ALDI BATERAKO SEINALEAK ETA BALIZA-SEINALEAK</b>	<b>87</b>
MEZU ALDAGARRIKO PANELAK	87
BALIZA-SEINALEAK	87
<b>AGENTEEN SEINALEAK ETA AGINDUAK</b>	<b>89</b>
SEINALE OPTIKOAK	90
SEINALE AKUSTIKOAK (TXILIBITUA)	91
IBILGAILUTIK EGINDAKO SEINALEAK	91

### 3. GAIA | BIDEAREN ERABILERA

<b>ZIRKULAZIOAREN NORANZKOA</b>	<b>92</b>
GALTZADAK NOLA ERABILI	92
BABESGUNEAK, IRLATXOAK EDO BIDERATZEKO GAILUAK	92
<b>ERREIAK NOLA ERABILI</b>	<b>93</b>
ERREIAK NOLA ERABILI HERRI BARRURAKO ETA HERRITIK KANPORAKO ARAU OROKORRA	93
ERREIAK NOLA ERABILI HERRI BARRUAN	93
ERREIAK NOLA ERABILI HERRITIK KANPO	94
ERREI ERRESERBATUAK	94
ABIADURA SEINALEZTATUAN JOATEKO ERREI ERRESERBATUAK	94
IBILGAILU JAKIN BATZUENTZAT ERRESERBATUTAKO ERREIAK	95
MANIOBRA JAKIN BATZUETARAKO ERRESERBATUTAKO ERREIAK	95
<b>BAZTERBIDEAK NOLA ERABILI</b>	<b>96</b>
ARAU OROKORRA	96
BAZTERBIDEA LARRIALDI-ARRAZOIENGATIK ERABILTZEA	96
<b>TRAFIKOAREN ANTOLAMENDU BEREZIA</b>	<b>97</b>
TRAFIKOAREN ARINTASUNA HOBETZEKO ERREIAK	97
ZIRKULAZIOA MUGATZEA ETA IXTEA	100
<b>AUTOBIDEETAN ETA AUTOBIETAN ZIRKULATZEA</b>	<b>101</b>
<b>ZIRKULAZIOAREN KALITATE-MAILAK</b>	<b>102</b>

### 4. GAIA | GIDARIA ETA BESTE BIDE-ERABILTZAILE BATZUK

<b>GIDARIA</b>	<b>103</b>
DEFINIZIOAK	103
GIDARIAREN BETEBEHARRAK	103
GIDARIAREN BALDINTZAK	105
GIDATZE PREBENTIBOA	106
<b>BIDEAREN BESTE ERABILTZAILE BATZUK</b>	<b>108</b>
OINEZKOAK	109
ZIKLOAK, ZIKLOMOTORRAK ETA MOTOZIKLETAK	112
ANIMALIAK ETA ANIMALIEK TIRATUTAKO IBILGAILUAK	115
MUGIKORTASUN PERTSONALEKO IBILGAILUAK (MPI)	116
<b>ARRISKU-TALDEAK</b>	<b>116</b>
OINEZKOAK	116
GIDARI GAZTEAK	118
BI GURPILEKO IBILGAILUAK	119
ADINEKO PERTSONAK	120

### 5. GAIA | ABIADURA

<b>ABIADURA</b>	<b>121</b>
ABIADURAK GIDARIARENGAN DUEN EFEKTUA	121
ABIADURARI BURUZKO DEFINIZIOAK	121
ABIADURA-MUGEN HELBURUA	122

BAIMENDUTAKO GEHIENENKO ABIADURAK ETA GUTXIENENKO ABIADURAK (KM/H)	123
BESTE GEHIENENKO ABIADURA BATZUK	124
BESTE ABIADURA BATZUK	125
GUTXIEGIZKO ABIADURA	125
ABIADURA EGOKITZEA	126
ERREAKZIO-, FRENATZE- ETA GERATZE-TARTEAK	127

## 6. GAIA | IBILGAILUAREN ARGIAK ETA SEINALEAK

<b>IBILGAILUAREN ARGIAK</b>	<b>132</b>
ARGIEN KOLOREA	132
POSIZIO-ARGIA	132
ARGI LUZEA EDO ERREPIDE-ARGIA	134
ARGI LABURRA EDO GURUTZATZE-ARGIA	135
LAINO-ARGIA	136
ARGIAK HONDATZEA EDO MATXURATZEA	137
BESTE ARGI BATZUK	138
<b>IBILGAILUEN SEINALEAK</b>	<b>141</b>

## 7. GAIA | MANIOBRAK

<b>DEFINIZIOAK</b>	<b>145</b>
PROGRESIO ARRUNTA	145
MANIOBRAK	145
<b>OINARRIZKO ZIRKULAZIO-MANIOBRAK</b>	<b>147</b>
ZIRKULAZIOAN SARTZEA	148
ALBORANZKO DESPLAZAMENDUA	149
AURRERATZEA	150
NORABIDEA ALDATZEA	156
NORANZKOA ALDATZEA	158
IBILGETZEA	160
GERATZEA	161
GELDITZEA ETA APARKATZEA	163
ATZERA-MARTXA	167

## 8. GAIA | PASATZEKO LEHENTASUNA

<b>PASATZEKO LEHENTASUNA</b>	<b>169</b>
<b>PASATZEN UZTEA</b>	<b>169</b>
BIDEGURUTZE BAT SEGURTASUNEZ ZEHARKATZEKO FASEAK	170
BIDEGURUTZE-MOTAK	170
<b>BIDEGURUTZEAK</b>	<b>170</b>
SEINALEZ TATUTAKO BIDEGURUTZEAK	171
SEINALEZ TATU GABEKO BIDEGURUTZEAK	172
BIDEGURUTZE BEREZIAK ETA BESTE ERABILTZAILA BATZUEKIN IBILBIDEA GURUTZATZEA	173
<b>OINEZKOEN, TXIRRINDULARIEN ETA ANIMALIEN PASATZEKO LEHENTASUNA</b>	<b>175</b>

<b>LEHENTASUNEZKO IBILGAILUAK</b>	<b>175</b>
<b>TRENBIDE-PASAGUNEAK ETA ZUBI MUGIGARRIAK</b>	<b>177</b>
<b>TUNELAK ETA AZPIKO PASABIDEAK</b>	<b>178</b>
<b>OBRETAN DAUDEN BIDE-TARTEAK ETA PASAGUNE ESTUAK</b>	<b>179</b>

## **9. GAIA | GIDARIARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK**

<b>GIDARIAREN EGOERA PSIKOFISIKOA</b>	<b>182</b>
<b>ALKOHOLA KONTSUMITZEA ETA GIDATZEA</b>	<b>182</b>
NOLA ERAGITEN DIO ALKOHOLA KONTSUMITZEAK GIDATZEARI?	182
<b>DROGAK KONTSUMITZEA ETA GIDATZEA</b>	<b>186</b>
NOLA ERAGITEN DIO DROGAK KONTSUMITZEAK GIDATZEARI?	186
<b>GAIXOTASUNAK ETA SENDAGAIK GIDATZEAN</b>	<b>189</b>
NOLA ERAGIN DIEZAIOKETE GAIXOTASUNEK GIDATZEARI?	189
NOLA ERAGIN DIEZAIOKETE SENDAGAIK GIDATZEARI?	191
<b>LOA EDO LOGURA GIDATZEAN</b>	<b>193</b>
LOAK EDO LOGURAK GIDATZEAN DITUEN EFEKTUAK	193
LOGURA AGERTZEA ERRAZTEN DUTEN EGOERAK	194
<b>NEKEA GIDATZEAN</b>	<b>194</b>
NEKEAK GIDATZEAN DITUEN EFEKTUAK	195
NEKEA AGERTZEA ERRAZTEN DUTEN FAKTOREAK	195
<b>GIDATZEAN ARRETA GALTZEA</b>	<b>197</b>
ARRETA GALTZEAK ERAGINDAKO ISTRIPUAREN DESKRIKAPENA EDO PROFILA	197

## **10. GAIA | SEGURTASUN AKTIBOA ETA PASIBOA**

<b>DEFINIZIOAK</b>	<b>201</b>
<b>BIDEKO SEGURTASUN AKTIBOA ETA PASIBOA</b>	<b>201</b>
<b>IBILGAILUAREN SEGURTASUN AKTIBOA</b>	<b>201</b>
ARGIAK	202
PNEUMATIKOAK	203
FRENO-SISTEMA	204
ESEKIDURA-SISTEMA	206
DIREKZIO-SISTEMA	206
SEGURTASUN AKTIBOAREN ARLOKO BESTE AURRERAPEN T EKNOLOGIKO BATZUK	207
SEGURTASUN AKTIBOAREN ARLOKO GIDATZEN LAGUNTZEKO SISTEMA AURRERATUAK (ADAS: ADVANCED DRIVER-ASSISTANCE SYSTEMS)	208
<b>IBILGAILUAREN SEGURTASUN PASIBOA</b>	<b>212</b>
TXASISA ETA KARROZERIA	212
SEGURTASUN-UHALA	212
HAURRAK LOTZEKO SISTEMAK (HLS)	215
BURU-EUSKARRIA	217
AIRBAGA	217
BESTE GAILU BATZUK	218

## 11. GAIA | MANTENTZE MEKANIKOA

<b>IBILGAILUAREN MANTENTZEAREN GARRANTZIA</b>	<b>219</b>
<b>IBILGAILUAREN MANTENTZEAN BERRIKUSI BEHARREKO ELEMENTUAK</b>	<b>219</b>
KARROZERIAREN MANTENTZEA	219
MOTORRAREN MANTENTZEA	219
TRANSMISIO-SISTEMAREN MANTENTZEA	222
DIREKZIO-SISTEMAREN MANTENTZEA	223
FRENO-SISTEMAREN MANTENTZEA	224
ESEKIDURA-SISTEMAREN MANTENTZEA	226
GURPILEN ETA PNEUMATIKOEN MANTENTZEA	226
EKIPO ELEKTRIKOAREN MANTENTZEA	229

## 12. GAIA | BIDAIAK PRESTATZEA ETA GARATZEA

<b>BIDAIAK PRESTATZEA ETA GARATZEA</b>	<b>230</b>
ALDEZ AURREKO EGIAZTAPENAK	230
NAHITAEZKO ORDEZKO PIEZAK ETA OSAGARRIAK	230
BIDAIEN PLANGINTZA	233
BIDAIEN GARAPENA	234
<b>GIDATZE EFIZIENTE ETA ARRAZIONALA</b>	<b>234</b>
GIDATZE EFIZIENTEAREN ABANTAILAK	234
MODU EFIZIENTEAN GIDATZEKO 3 JARRAIBIDE	234
ERREGAIA AURREZTEKO BESTE NEURRI BATZUK	235
KUTSADURAREN ARAZOA	236
<b>BALDINTZA METEOROLOGIKO TXARRETAN GIDATZEA</b>	<b>236</b>
IZOTZA ETA ELURRA	236
EURIA	238
LAINOA	239
HAIZEA	239
<b>ZIRKULAZIO-ISTRIPUETAN IZAN BEHARREKO PORTAERA</b>	<b>241</b>
SOROSPEN-EGINBEHARRA EZ BETETZEAREN DELITUA	241
ISTRIPUAREN LEKUA UZTEAREN DELITUA	242
JARDUKETA-AGINDUA	242
OINARRIZKO JARDUKETA ISTRIPUA IZAN DUTENEN AURREAN	245

## 13. GAIA | MOTOZIKLETAK ETA ATOIDUN IBILGAILUAK

<b>MOTOZIKLETAK</b>	<b>251</b>
AGINTEAK ETA ATZERAISPILUAK	251
KASKOA	252
JANTZIAK	252
GIDATZEA	253
OINARRIZKO MANTENTZE MEKANIKOA	254
<b>ATOIDUN IBILGAILUAK</b>	<b>254</b>
GIDATZEA	255
OINARRIZKO MANTENTZE MEKANIKOA	256



Bidearen **seinaleztapenaren** xedea da **erabiltzaileak ohartaraztea eta informatzea** (behar besteko aurrerapenez) bideko edo zirkulazioko inguruabar jakin batzuei buruz, eta **haien portaera ordenatzea**.



Zirkulazio-seinaleak ez dira kapritxoak jarri bidean; arrazoi bat dute.

Seinaleak interpretatzen jakiteak errepidea "irakurtzen", arrisku-egoerei aurrea hartzen eta segurtasun handiagoarekin gidatzen lagunduko digu.

**Seinaleztapenak** bere zereginak beteko baditu, **argia, erraza eta uniforme**a izango da (lengoaia bakarria erabiliz).

## ZIRKULAZIO-SEINALEEN ARTEKO LEHENTASUN-ORDENA

Zirkulazio-seinale mota guztiak zuzen interpretatu eta betetzeko, honako lehentasun-ordena hau ezartzen da haien artean.



1. ZIRKULAZIO-AGENTEAK



2. ALDI BATERAKO SEINALEAK ETA BALIZA-SEINALEAK



3. SEMAFOROAK



4. SEINALE BERTIKALAK



5. BIDE-MARKAK

### GOGORATU

Hau da kontuan hartu beharreko lehentasun-ordena: **Agenteak. Balizatzea. Semaforoak. Bertikalak. Bide-seinaleak**

## Lehentasun-ordenaren salbuespenak

**1 Semaforo karratu batek –edo erreiko semaforo batek– ez du lehentasunik bidean** jarritako gainerako seinaleen gainetik. Beheranzko gezi berdeak ez digu pasatzeko lehentasunik ematen. Geratzera nahiz pasatzen uztera, edo, halakorik ezean, pasatzeko lehentasunari buruzko arau orokorrak aplikatzera behartzen duten seinaleak errespetatu behar ditugu.



**2 Semaforo zirkular batek argi hori keinukaria duenean, gainerako seinaleak errespetatuko dira.**



Kasu honetan, "Stop" seinalea errespetatu behar dugu. Oinezkoak zeharkatzen ari badira, pasatzen utzi beharko diegu.

Kasu honetan, pasatzen utzi behar dugu. Semaforoak erreia zein noranzkotan dagoen irekita adierazten digu.





**3 Langa altxatuta badago eta "Stop" bat badago**, seinaleen arteko lehenetasuna dela eta, pasatzea ahalbidetzen digun langaren agindua errespetatu beharko dugu (\*). Hala ere, "Stop" seinalea betetzea komeni da, trenik ez dela hurbiltzen ziurtatzeko.

(\* Langa hondatuta badago eta funtzionatzen ez badu, nahitaezkoa izango da geratzea trenbide-pasagunea gurutzatu aurretik.

**4 Bi seinaleren artean kontraesana dagoenean.**

Seinaleak mota berekoak badira, murriztaileenari obeditu beharko zaio. Kasu honetan, 50 km/h-ko gehieneko abiadura adierazten duena izango litzateke.



Seinaleak mota desberdinekoak badira, seinaleen arteko lehenetasun-ordenari jarraitu beharko zaio. Kasu honetan, Pasatzen uzteko seinaleari obeditu beharko diogu, seinale bertikala delako, stop seinalea murriztaileagoa izan arren.



**5 Arau baten eta seinale baten artean kontraesana dagoenean.**



Kasu horretan, seinaleari obedituko zaio.



## SEINALEEI OBEDITZEA

**Zirkulazio-seinaleen argibideak** (debekua nahiz betebeharra adierazten dutenak) **galtzadaren zabalera osoari aplikatzen** zaizkio seinalea zuzentzen zaien gidarientzat, baina errei batera edo batzuetara mugatu daitezke galtzadako marken bidez.

*Gidari guztiak obeditu behar diete semaforoan eta zirkulazio-seinale bertikalen jarraibideei, baldin eta beren eskuineko aldean, galtzadaren gainean edo zirkulatzen ari diren erreiren gainean badaude.*

### Kasu praktikoak

**Seinale** bakarra badago eta **bidearen eskuinaldean jarrita badago**, gidari guztiak obeditu behar diote, nora doazen kontuan hartu gabe.

Kasu honetan, bi turismoek obeditu behar diote eskuinaldean jarritako "Stop" seinaleari. (Bideak 5 errei baditu ere, ibilgailu guztiak "Stop" seinaleari obeditu beharko diote).



**Semaforo edo zirkulazio-seinale bertikal bakarra** badago **bidearen ezker aldean**, ezkerrean biratu nahi duten edo aurrera jarraitu nahi duten gidariak bakarrik obeditu behar diote.

Eskuineko erreian kokatuta egon arren, turismo horiaren gidariak, aurrera jarraitu nahi badu, semaforoari obeditu behar dio.



**Seinale bertikalak edo semaforoak eskuinaldean eta ezker aldean kokatuta** egonez gero, gidariak seinale bertikal edo semaforo hauei bakarrik obeditu behar diete:

- **eskuinaldekoei**, eskuinera biratu behar badute.
- **ezker aldeko**, aurrez aurre jarraitu behar badute edo ezkerrean biratu behar badute.

Errietan asfaltoan margotutako geziak badaude, jarraitu beharreko norabideak adierazten dituztenak, eta ezin bada erreiz aldatu erreia mugatzen duen marra etengabea delako, gure erreiko geziak adierazten duen norabidea jarraitu behar dugu.

- Auto berdeak eskuinera biratu behar du; eta
- Auto urdinak aurrera jarrai dezake, edo ezkerrean biratu.



## BIDE-MARKAK


Zoladura edo asfalto gaineko markek **xede** hauek dituzte:

- zirkulazioa erregulatzea.
- bide-erabiltzaileak ohartaraztea edo gidatzea.

Bakarrik edo beste seinaleztapen-elementu batzuekin batera erabil daitezke, argibideak indartu edo zehazteko.



## BIDE-MARKEN SAILKAPENA



### LUZETARAKO MARKA ZURIAK

#### Luzetarako marka etengabea

Galtzadaren gainean marra zuri etengabe bat badago, horrek esan nahi du **gidari batek ere ezin duela zeharkatu** –ez ibilgailuarekin, ez animaliekin– eta ezin duela **ibilgailuarekin zirkulatu marra horren gainetik**. **Markak** zirkulazioaren **bi noranzkoak banatzen dituenean, haren ezkerretik ere ezin da zirkulatu**. (Noranzko bakarreko bideetan, erreiz aldatzea debekatzen du).

Atxikitako (=elkartutako) luzetarako marra etengabe biz egindako luzetarako markak ere esanahi berbera du.

**Errei berezi batean gaudela ere adieraz dezake;** kasu horretan, marka hau zabalagoa izaten da. Errei berezi horretatik doazen ibilgailuen gidariek, kontu handiz, marra zeharkatu dezakete, beharrezkoa denean dena delako maniobra egiteko edo iritsi nahi duten helmugaruntz jarraitzeko.

## Luzetarako marka etena

Galtzadako luzetarako marra etenak:

- **erriak bereizten ditu**, zirkulazioa gidatzeko.
- adierazten du **gidari batek ere ezin duela** marraren **gainetik zirkulatu** –ez ibilgailuarekin, ez animaliekin–, salbu eta galtzadako erriak estuak direnean (3 metroko zabalera baino gutxiagokoak), betiere beharrezkoa bada eta zirkulazioaren segurtasunak bide ematen badu.

Beste helburu hauek **ere izan ditzake**:

- **luzetarako marka etengabe batera hurbiltzen ari den** gidariari iragartzea marka horrek zer debeku ezartzen duen, edo nahikoa hurbil arrisku bereziko bide-tarte bat dagoela. Halako kasuetan, **marren arteko tarteak laburragoa izaten da**.
- **errei berezi bat dagoela adieraztea** (autobus-errea, sarrerakoa nahiz irteerakoa, edo besteren bat). Halako kasuetan, marka **zabalagoa izaten da**.



## Luzetarako marka eten bikoitza

**Errei bat bi aldeetatik mugatzen duten luzetarako marra etenak adierazten dute** errei hori alderantzikagarria dela; hau da, noranzko batean zein bestean erregulatuta egon daiteke zirkulazioa, erreiko semaforoaren bidez edo beste bitarteko batzuen bidez.



## Marka etenei atxikitako luzetarako marka etena

Marra etenari **atxikitako luzetarako marra etengabe bat** dagoenean, gidariak beren aldetik daukaten marra baino **ez dute kontuan hartu** behar zirkulatzean.

Atxikitako marka horiek **zirkulazio-noranzko desberdinak** bereizten dituztenean, marra etengabeak **ez die eragozten galtzadako ohiko aldera itzultzea** aurreratze bat egin duten **gidariei**.

Marka horiek **noranzko bakarreko bideetan** (irteera batetik hurbil) jarrita daudenean, marra etengabeak **erreiz aldatzea debekatzen du**.





Gidabaimenak  
**Euskaraz**



*Euskadiko Autoeskolen  
Federakuntza*

*Federación de Autoescuelas  
de Euskadi*